# MUNSTROA

Gau artan, munstro bat ikusi nuen...
Buru erraldoia zuen eta bertan hiru begi berde ageri ziren, sudurra patata formakoa zuen, izugarrizko ahoa zuen eta ezpainak horiak eta lodikoteak, eta txistu nazkagarria erortzen zitzaion aho ertzetik.
A ze tximak zituen! Hiru ile adats erortzen zitzaizkion burutik sorbaldaraino.

Hura ikusi nuenean, beldurtu, ikaratu, dardarka hasi eta ia - ia lurrera erori nintzen zorabiatuta.

Munstro izugarri hura nire atzetik zetorren, korrika, saltoka..., eta bere hiru besoak luzatu zituen ni harrapatzeko asmoz. Eta ukitu ninduenean, orduan esnatu nintzen. Uaaaa! Eskerrak, ametsetan ari nintzen! Inoiz izan dudan ametsik gaiztoena izan zen!

1- Zer da kontatzen dena?

2- Zer ikusi zuen ametsetan?

3- Nolako burua zuen mustroak?

LIVEWORKSHEETS

4- Zenbat begi zituen?

5- Nolako ezpainak zituen?

6- Zer ateratzen zitzaion aho ertzetik?

7- Nolako ilea zuen, luzea ala motza?

8- Zer gertatu zitzaion munstroa ikusi zuenean?

9- Noiz esnatu zen ametsetatik?

LIVEWORKSHEETS